

TALDE-LANA: SUMENDIA

Sumendi bati buruzko lan bat egin behar duzue, taldeka. Egokituko zaizuen (zozketaz, irakasleak esanda, zuek aukeratuta...) sumendiari buruz, datuak eta informazioa bilatu eta azaldu beharko duzue txosten idatzi batean:

Sumendiaren datuak: izena, kokapena, sumendi-mota eta argazki bat.

Bestelako informazioa: jarduera bolkanikoa (erupzio garrantzitsuenak noiz), haietan eragindako hondamendiei buruzko informazioa (hildako kopurua, kaltetutako lurraldearen hedapena...)...

Lana testu prozesadore batez egingo duzue, irakasleak emango dizkizuen formatu-ezaugarriak kontuan hartuz. Amaitu eta gero, irakasleari igorriko diozue, posta elektronikoz (postak idazteko irizpideak gogoratu).

Lana taldeka egingo denez, talde bakoitzak oso argi eduki behar du:

- Taldearen egitekoa
- Zeregin zehatzak
- Nork zer egingo duen
- Epeak

Amaitutakoan, eta egindako lanak merezi badu, sumendiei buruzko wiki bat egin dezakezue. Gelako blogean, egindako lanaren berri eman eta wikirako lotura jarri. Ea nor animatzen den azken urrats hau egitea!